



Estanislao
Urruzola
Vitoria
Uxola

1909-1986

BIDeGILEAK

Egilea:

Maddi Soroa



ESTANISLAO
URRUZOLA
VITORIA
UXOLA

(1909-1986)

Elkartasunaren alde

ETSIPENA GARAILE

«Nere bizi osoa nere idealen alde bo-
rrokatu, klandestinitatean ibili, kartzelan
egon eta gero ola? Dena eman eta zer jaso
det?» «Guztiok elkartu bearrean, elkar
joka bizi bear al degu?» Horiek dira Es-
tanislao Urruzola Vitoriaren azken urtee-
tako hitzak, etsipenak gailendu baitzuen
hil aurreko azken urteetan. Triste gogora-
tzen du aita Xabier semeak, begietako
distira galduta, berezkoak zituen grina
eta ilusioa alboratuta, gizartean euskara
eta politikagintzarekin gertatzen ari zena-

ren penaz. Bakoitzak bere aldeko bideari
ekinagatiko tristuraz. Bere ametsak za-
puzten ikustearen minez. Eta batez ere,
bere barrenak askaturiko hitzen dantzak
argia noiz ikusiko zain; izan ere, argitara-
tu gabeko autobiografia bat idatzi omen
zuen.

Bizitza euskalduntasunaren alde eman
zuen gizon umoretsu bezain sutsuaren bi-
daia da honakoa. Burua eta bihotza eus-
karari eta euskal kulturari eskaini zizkion
gizona baitzen Uxola, nahiz eta elkarta-
sunaren aldeko ideiak zapuzturik ikusi.
Jaio zela 100 urte beteko dira aurtan.



Urruzola-Vitoria sendia. *Uxola*, eskuinean txuriz

Honela esan zuen, Joxemiel Bidadorrek 1999ko *Euskaldunon Egunkari*ko artikuluan: «...ezin ukatu geure garaiko euskal idazle naroa eta maratza izan zela, antzerti arloan bereziki; bere ospe apalaren arrazoietakoa pisuzkoena, segurki, Euskerazaintzaren kide izatea dateke, aberastasun zabal baten adierazgarri beharko lukeena, baina euskara kontuetan guztiz jarrera txauvinista eta fundamentalista samarretara goazen egunean traba baizik ez dena».

UXOLA

Estanislao Urruzola *Uxola* 1909ko azaroaren 13an jaio zen, Tolosako Kale Nagusiko Vinos Mendieta etxean, bere aitoren etxean, hain zuzen ere. Bazuen etxe hark berezitasun bat: Tolosako etxeen artean, komuna zuen etxe bakarra zen. Casiano Urruzola tolosarra zen Uxolaren aita, lanbidez iltzegilea, eta gerora, tabernan eta ikatzean ere aritua. Ama, berriz, Modesta Vitoria zen, Tolosako Iturralde

baserrikoa. Zazpi senidetan zaharrena zen Estanis, hala deitzen zioten senitartekoek. Ondoren etorri ziren haren lau arreba (Beatriz, Maria Jesus, Petra eta Justa) eta bi anaiak (Eduardo eta Jose Luis). Hirugarren bat ere bazen (Eduardo) gazterik hil zena. Beharbada, familiarengatik zen umoreko gizon eta txantxetan trebea, uneoro izaten baitzen prest anai-arrebei irripartxo bat lapurtzeko.

Hamasei urterekin amaitu zituen merkataritza ikasketak Tolosako Eskolapioetan, eta berehala hasi zen lanean herriko Limousin enpresan, osabarekin. Soldaduskan, *Soldado de Cuota* gisa aritu zen; izan ere, zazpi anaietan zaharrena izaki, etxean lagundu beharra zuen. Soldadu sartu aurretik maitemindu egin zen, Pasai Donibaneko Saatsa baserriko Maria Eugenia Mujika Eguesekin, hain zuzen. Tolosako Korreo kalean egiten zuen lan Maria Eugeniak gaztetan, eta hara joaten omen zitzaion sarri Estanis, bertsoak kantatzera; Santa Ageda egunean esaterako.

Uxola ezizenarekin ezagutzen dute askok Estanislao Urruzola. Hipotesi bat



Uxola, erdian, bere ahizpa Beatriz, Maria Jesus, Petra eta Justarekin

baino gehiagok azaltzen dute Uxola ezizena zergatik hartu zuen Estanisek. Haren arreba Maria Jesusen ustez, ezizen hori praile baten hitzengatik hartu omen zuen, hark esana zen: «urruzola significa zona de avellanas». Estanisen seme Xabierrek, ordea, uste du urruz hitza «urritza»tik datorrenez, eta Alkizan (aitonaren baserria zegoen tokian) hurritz



Tolosako eskolapioetan ikasi zuen Uxolak. Geroago, 1974-75 eta 1975-76 ikasturteetan bera izan zen bertako euskara irakasle

asko zeudenez, bada hortik hartu zuela ezizena. Badu beste hipotesi bat ere Xabierrek, Erriotik Alkizarako hamaika txangotan erreka ur-soinua aditzean, ur-soinua Uxola ezizen bihurtu zitzaiola Estanisi. Estanislao, Estanis edo Uxola deitu, denek ezagutzen zuten gizon borrokatzailea.

Bere idealak defendatzeagatik, edozer egiteko gai omen zen Uxola; setatia bezain arduratsua baitzen. Ez zen isilik geratzen, eta ez zuen injustiziarik pasatzen uzten. Kontrako iritziak onartzen zituen, baina



Ezkontza-argazkia. 1944ko otsailaren 15ean ezkondu zen Estanislao Urruzola Vitoria Maria Eugenia Mujika Eguesekin Tolosan

hizketaldien bitartez argudiatzen saiatzen zen, bai eta kontrako iritzia zutenei berea igortzen ere. Honela definitzen du Jose Maria Goñi kazetariak: «Un hombre que hizo culto de su acendrado amor al País Vasco, al que se entregó por entero en defensa de sus valores culturales, especialmente al del idioma».



Euskaltzale eta abertzale

Estanis, Ayerza lagun minarekin. Atzean zera irakur daiteke: «7 de septiembre 1930. Congreso de Vergara»

GAZTE ETA ERREBELDE

1907ko abuztuan osatu zen behin betiko Tolosako Eusko Alderdi Jeltzalea. Bi egitura zituen; batetik, *Uri Buru Batzarra*, erakunde politikoa eta herriko aginte abertzale gorena; eta bestetik, Batzokia, herriko abertzaleen biltoki eta jolastokia. Jose Eizaguirre eta Isaac Lopez Mendizabal arkitekto gazteen eskutik, urte bereko irailaren 15ean ireki zituen ateak Tolosako *Euzko Batzokiyak* Antonio Elosegui kaleko 63. zenbakian. Artean Estanis jaio gabea bazen ere (1909an jaio zen), berehala murgildu zen Tolosako abertzaleen mugimenduan, gazte-gaz-

tetatik hasi eta azken egunera arte aritu zen bertan. Rondilla kaleko Ayerza bizikleta tailerrean hasi zen elkartzen Estanis, Ayerza, Ixaac Lopez Mendizabal, Uzturre, Tximela, Zubillaga, Ezeiza eta beste hainbat nazionalista eta euskaltzalarekin. Lagun haien eskutik egin zen Uxola EAJko bazkide (1929an, 20 urterekin) eta abertzale lanari gartsuki ekin zion. 1935ean Tolosako *Uri Buru Batzarkide* izateko aukeratu zuten, eta tinko jarraitu zuen abertzaletasunean Franco hil arte. Bere batzarkide guztiak hil eta gero bera ere baztertua izan zen. Beraz, batzokian bizi izan zituen politikagintzaren gazi-gozoak. Hara eta hona ibil-



Estanisek Ernioko gurutzean jarritako ikurrinari ateratako argazkia (argazkigintza gustuko zuen). Berak bildutako eskalatzaile taldeak beste horrenbeste egingo zuen inguruko mendi-gurutze, eliza-dorre eta baita Burgosko katedralean ere

tzen hasi zen mitinetan parte hartuz eta ondorioz hainbatetan gorputza jipoituta etxeratu zen. 1928an atxilotu zuten lehen aldiz Zudaireko Somatenek mendian zehar zihoala. Zenbait galdera egin ondoren askatu bazuten ere, denborak aurrera egin ahala, behin baino gehiagotan espetxeratu zuten legez kontrako propagandarekin aritzea leporatuta. Hala ere, ezerk ez zuen geratzen Estanis, jipoiak jasota ere, lanean jarraitzeko asmoa ez zuen sekula burutik kendu.

Ama euskaltzalea zuen Urruzolak; aita, ordea, karlista peto-petoa zen, arrebaren ustez, «botoak ordaintzen zituen horie-



Estanis gaztetan mendizaleaz jantzita

takoa». Estanisen arrebak gogoan du nola zuzendu zitzaion aitari: «gauza bera da, zuek erregea nai dezute ta guk foruak». Eta beste hau ere bai: «Urruzola aitona zera esan omen zion behin Estanisen aitari: “A ver que hace tu hijo, vigílale, que le he oído decir Gora Euskadi!”». Estanisen familiak ez zuen onartzen haren pentsaera, hala ere, gizon leia-

la izaki, bizi osoan defendatu zituen bere ideiak, azken muturreraino borrokatuz.

Batzokiko lehenengo lehendakari Joaquin de Goicoechea zenean, lurraldeko agintari gorenak, galdeketa bat bidali zuen, eta jasotako erantzunean esaten denez, helburu hauek zituen Batzokiak: «Fomentar la cultura vasca que ha de multiplicar el amor a esta tierra y pro-

porcionar a los asociados recreo y solaz honesto». Halaxe egin zuen Uxolak, garaiko abertzaleek bezala. Batzokian ikasi zuen euskaraz, Lizardi maixu zuela.

Politikaz gain, ordea, dantza eta mendia ere ezinbestekoak izan ziren Estanisen bizitzan. Honela dio *Tolosa, Euskal Abertzaletasunaren bihotza* historia liburuak: «Erakunde nazionalisten dina-



Estanis (zutik hirugarrena ezkerretik hasita) Pirinioetara joan ohi zen sarri Mendirik-mendi taldearekin; lehenengo espedizioan (argazkian), Gran Facha eta Balaitus igo zituzten



Mendia eta dantza zituen zaletasun Estanisek. Edozein momentu zen aproposa dantzatzeko. Argazkian, Estanis (ezkerrean) ezkontza batean dantzan

mika trinkoa ez da arlo politiko horretan agortzen, politika hutsaren izariaz handi doa. Hori guztia, euskal kosmoikuspegi abertzale bereziagatik... EAJk bada, halako mikrogizarte bat osatuko du euskal gizartearen baitan. Bizitzako iharduera oro, ez politikoa bakarrik, sar daiteke Alderdiaren esparruan, denak jotzen baitira beharrezko eta ezinbestekotzat nazio-eraikuntzaren prozesuan». Gauzak horrela, Uxolarentzat edozein momentu zen ona dantzarako: lagunartean, ezkontza batean edo festa giroan. Dantzari fina ez ezik dantza irakasle ere izan zen. Ahal zuen emanaldi guztietara joaten

zen emaztea edo seme-alabekin, baita bere ikasleekin ere; izan ere, badirudi euskal kulturaren fruitu diren euskal dantzak maitatzeak Euskal Herriarekiko lotura areagotzen ziola.

Esan bezala, dantzaz gain, mendia ere gustuko zuen Uxolak. Gustua baino gehiago, afizio ikaragarria zuen. Aralarko Lagunak elkarteko partaide ere bazen. Uzturre eta Ernio mendiak zituen gogoen. Anai-arrebekin gaztetan eta seme-alabekin gero, hamaika bider ikusi zituen bertako paraje ederrak. Gazte denboran, serioago aritu zen. Makilaz lagunduta, 100 mendiak egin zituen beste hiru lagunekin batera, artean Teodoro Agote. Gipuzkoatik Pirineoetara abiatutako aurrenengo espedizioetan ere hartu zuen parte. Dantza eta mendia bai, baina denen gainetik euskara eta aberria maite zituen Estanisek. Gazte-gaztetatik, Euskal Herria bihotzean izanik, haren alde egin zuen hamaika bider; izan ere, Antzerti-k definitzen duen bezala, «bere den guztia, esan daiteke, irauli duela Uxolak aberriaren izan zitezkeen ekintza guztietan».

GERRAREN GAZI-GOZOAK

1936ko gerrara soldadu joan behar izan zuen Estanisek. Eskola gizona izanik, soldadu arruntarena baino maila altuagoko kargua jarri nahi zioten. Berak, ordea, umiltasuna lagun, ez zituen goi karguak gogoko, eta ukatu egin zituen etengabe. Azkenean, komunikazio sailerako izendatu zuten. Etxetik gertu aritu zen hasieran. Beizaman, Mendizorrotz-Oriamendin, Ernion eta Elgoibarko San Migel inguruetan ibili zen. Karlistek Tolosa hartu zutenean, berriz, Loiolako Gudarozte Etxera joan zen. Handik, Bilborantz abiatu zen gero, eta gorriak ikusi zituen Elgeta, Basalgo, Legutiano eta beste zenbait menditan. Anbotoko kobazuloan bi gau ere pasa zituen, karlistek aurea hartutakoan. Gerra amaitzear zenean, Elosu, Nafarrete, Igorre, Artxanda, San Roke eta Laredon izan zen, Itxarkundia batailoiko gudariekin batera.

Laredoko errendizioaren ondoren, preso egon zen denbora luzez espetxez espetxe. Miranda de Ebroko zigor-zelaira eraman zuten, eta handik, Bilboko Eskolapios espetxera. Epaiketa egin ostean,



Gerra garaiko argazkia, Estanis, erdian beste bi lagunekin batera inauterietako mozerroz jantzita gerran ere inauteriak ospatzen. Horra hor, Estanisen zaletasuna inauteriekiko. Honela dio atzean: «Km. 18. Jolasean, moroak eta periodistak izketaldian»

12 urteko zigorra jarri eta Larrinagan sartu zuten. Puerto de Santa Mariara eraman zuten gero, eta bi urte pasa ondoren, Madrilgo Yeserias eta Valladolideko espetxe probintzialetan ere egon zen. Cadizen zegoela, *Metodo de Alemán* izenpean, gerran bizitako esperientzien berri eman zuen liburua idatzi eta kanpoan zirenei helaraztea lortu zuen. Idatzia euskaraz zen, noski; baina kartzelako funtzionarioek alemanez idatzia zegoela sinetsi zuten. Honela lortu zuen Estanisek abertzaleek jasandako hilketak,



Estanisek (beheran, ezkerretik hasita lehenengoa) ez zion idazteari utzi gerra garaian;
orduko lanik gehienak *Eguna* egunkarian argitaratu ziren

torturak eta gerra gordinaren minaren berri ematea. Izan ere, nahiz eta tiroak, hildakoak eta gerraren krudelkeria odo-lean bizi, Estanisek ez zion idazteari utzi. Bilboko euskara hutsezko *Eguna* egunkarian irakur daitezke egun haietan idatzitakoak.


Cadizen zegoela sortu zen Euzko Gogoa isilpeko erakundea, eta bertan ere, buru-belarri sartu zen abertzalea. Hona hemen Estanisek espetxeaz mantendu zuen

oroitzapenetako bat: «Larrinaga'n geundelarik, Celdas de Castigo batera sartu ginduten. Aberri Egun batez (1938), alai geundelako, amabost egunetarako. Arriaga musikalaria ospetsuaren illoba batek sortzen zuen musika, Amezola olerkariak erderazko olerkiak, nik euskerazkoak, eta bagenuen gure artean marrazkilari bat ere. Sei edo zazpi geunden eta antzestu ere geurok egiten genuen. Bazan an umorerik eta... zerbait geiago ere bai».

Nahiz eta 12 urte eta egun bateko kondenatua jaso, garaiko beste preso politikoek bezala, aske geratu zen hiru urte geroago amnistia eman zutenean. 1944an ezkondu, eta Tolosako Oriabe arte grafikoen enpresan hasi zen lanean. Emazteak elikagailu-denda zabaldu zuen Kale Nagusian. Estanisen egoerak, ordea, berehala egin zuen okerrera, askatasunaz gozatzeko aukera gutxi izan baitzuen. 1946an, San Migeldik Huarte-Arakilerako bidean atxilotu, Tolosan jipoitu, eta Donostiako Ondarreta espetxean sartu zuten. Bertan pasa zituen

ia 100 egun, gela itxi batean, inorekin harremanik izateko aukerarik gabe. Espetxean, beste epaiketa bat ere egin zioten, *tráfico de divisas* izatea egotzita; izan ere, 81 laurleko eta urrezko txanpon bat utzi zituen etxean gudara irtetean.

Harrezkero, eguneroko ogi bilakatu ziren salaketak, inspektzioak, kontrolak eta isunak bai Estanisentzat, bai eta Maria Eugenia emaztearentzat ere. Bizitzen uzten ez ziotela-eta, babes eta lasaitasun bila, Valentziako Burriana herrira joan zen familiarekin (emaztearekin eta urte beteko seme Xabierrekin).



BURRIANA EUSKALDUNA

Bizimodu berriaren bila joan bai baina ez zuten aldaketa handirik egin bizitzeko moduari dagokionez. Gorputza Burrianan zuen Urruzolak, burua eta bihotza, ordea, Euskal Herrian utzi zituen, eta hala egingo zuen azken egunera arte.

Legez kontrako propagandarekin aritzeagatik kartzelatu zuten Estanis behin baino gehiagotan. Honako hau, Tolosako instrukzio epaitegiko dokumentua da. Estanisentzako prokuradore bezala Don Angel Lasquibar izendatzen dela dio dokumentuak



Burrianako El Jardín de las Viudas plaza. Bertan igaro zituen Estanisen sendiak ia 20 urte. Argazkiaren atzean Estanisen lagun batek Estanisi idatzitako eskutitza irakur daiteke, bien laguna den Manoloren desagerketaz mintzatzeko

Burrianan pasa zituen urteetan, kontable gisa aritu zen lanean paper fabrika batean, bertan ari ziren, baita ere, berehala lagun min izango zituen Villabonako Gaspar eta Iraola. Baina ez ziren horiek euskaldun bakarrak Burrianan; izan ere, atzerriratzeko beharragatik batzuk, lan bila beste batzuk, euskaldun mordoa bildu zen Burrianako kaleetan, Calpar-soro eta Armendariz paper fabriketan gehienak. Haiek izan ziren Urruzolatarrren lagun eta familia, ia 20 urtez.

Burrianan hazi zuen familia Estanisek. Emaztearekiko maitasunaren fruitu etorri ziren beste bi haurtxo: Edorta 1949an eta

Nerea 1951n. Hala ere, Estanisek hala eskatuta, M. Eugenia Tolosara etortzen zen erditu eta jauna hartzera. Alabaren inguruan bada anekdota bitxia: Estanis joan da erregistrora alaba Nerea izenpean sinatzera. Epaileak ezetz, izen hori ezin duela jarri euskaraz delako, eta Estanisek Elizako Santoralean San Nereo azaltzen dela erantzunez, Nereoren emakumezko izena Nerea beharko lukeela! Horratx, Estanisen euskaltzaletasunaren hamaika adibidetako bat. 1956an, «Nere Nerea» izenburupean, bertso batzuk eskaini zizkion alabari *Euzko Gogo*a-n. Hona hemen, 13 bertso bildumako batzuk:

1. Nerea zera! Inundik ere nere Nerea!
Zurea nazu ta, noski, zu nerea;
Zure ama bai-dezu nere emaztea!
Beraz, zure aita nazu nere Nerea!

2. Zerbait esan gogo dizut aita naizen ontaz:
oraintxe, aur izanda koxkortzen bai-zoaz;
laister, ludian zear zoazenean zure egaz,
aitaren esanak ausnar ditzazun arretaz.

4. Ama, seaskan arantz-onuntzko trakakoaz
abesti xamur, eresi ezti, goxo ta beraz
naasirik lenen mintza zitzaizun euzkeraz,
zure aiton, asaben ta oien osaben izkeraz.

10. Gero, ama izateko zori ba-damaizu
Jainkoak,
Ez aaztu iñolaz euskaldun amen
eginbearrekoak,
Ta zure amak zu bezela, zure aur mozoloak
Pulunpatuaz, euzkeraz kanta artu arte loak.

Euskaraz gain, katalanez ere ikasi zuten seme-alabek. Aitak ordea, otorduetan euskaraz hitz egiteko agintzen zien, «bestela ez dezute jatekorik izango!» esanez. Ez zuen nahi sorterriarekiko lotura galdu eta euskara ahaztea. Euskaraz mintzatzear haratago, kantuz, jakiz eta festaz ere mantendu zuen Urruzola-Mujika familiak aberriarekiko lotura, Burrianan bizi zen beste hainbat familia euskaldunekin batera. Euskaldun ziren eta hala bizi ziren, Burriana Euskal Herriaren zati balitz bezala, eta Euskal Herria Burrianarena balitz bezala: Santa Ageda eguna ospatzen zuten bertsoz eta kantuz, artzain-andre arropak janzten zituzten eguberrian, eta gastronomia-ohiturak ere ez zituzten ahaztu. Rafael Valeroren likore dendaren izkina batean elkartzen ziren Burrianan zeuden euskaldunak, Tolosako sozietate batean baleude bezala.



Burrianako portuan ateratako argazkia; Estanisen amak, asma zuela eta, negua bertan pasatzera joan zenean. Uxola ageri da, bere ama, emaztea eta seme-alabekin




Gizon estimatua zen Estanis Burrianan, bertako kultura eta ohituretan sartu baitzen guztiz. Falletarako kantuak ere egin zituen bertan, hortik dator argazki honen zergatia

Estanis eta gainontzeko euskaldunek Burrianan euskaldun giroa sortzeaz gain, bertako kultura, hizkuntza eta ohiturak guztiz errespetatu zituzten. Elkarrekin ospatzen zituzten denek *Fallak*, bertako jairik ospetsuenak. Estanisek be-

rak behin baino gehiagotan hartu zuen festetan parte kantuei letrak jarritz, likore dendentzako *Club Valero* abestia sortuz, eta abar. Bertakoentzat ez ezik, bere barruarentzat ere lanean jarraitzen zuen, idatzi eta idatzi; artikuluak, antzerkiak, bertsoak, olerkiak... denetik idatzi baitzuen Burrianan igaro zituen urte haietan. Bestalde, ez zuen polizia

paretik kentzerik izan, hilero-hilero Burrianako Guardia Zibilaren kuartelera joan behar izaten baitzuen sinatzera. Era horretan bizi izan zituen Estanisek, bere senideekin batera, ia hogeitau urte. Baina burua eta bihotza Euskal Herrian zituen oraindik, eta egun batetik bestera, arrazoi berezirik gabe, etxera itzultzeko erabakia hartu zuen euskaltzaleak arra-



Burrianara lasaitasun bila joan, baina han igarotako denboraren ondoren, lasaitasuna agortuko zitzaion Estanisi, berriro ere epaitegi eta kartzeletan izan baitzen. Arrazoi nagusia, legez kontrako propagandarekin aritzea


paladan eta bat-batean. Zergatia oraindik ere argitu gabe egon arren, Estanisen senitartekoek uste dute haren Euskal Herriarekiko lotura eta maitasuna izan zirela bueltatzearen arrazoiak.

Burrianatik bueltan, 1966an, Elduaingo Sorrieta baserrian bizi izan ziren hilabeteetan. Gero, Tolosako Laskurain kalean hartu zuten bizitokia. Ez zen samurra izan etorrera: lanik ez, etxerik ez, hiru seme-alaba eta berriro ere hasieratik hasi beharra. Gogorra izan arren, ez zuten etsi, denek uste baitzuten merezi zuela Euskal Herri maitera bueltatzeak. Hainbat lanbide izan zituen Estanisek etxera itzultzean: Ugarala enpresan hasi zen lanean; gero, Gasteizera joan behar izaten zuen trenez astelehenetik ostiralera hurrengo lanpostura, eta Zizurkilgo tailer batean ere aritu zen ondoren. Baina ez zuen enpresetan soilik lan egin, isilpeko sindikalgintzan ere aritu zen. Euskal Herrira bueltatu zen urtean bertan (1966an), Bruselan, Nazioarteko «Kristausindikalisten Batzarrean» jardun zuen euskal ordezkari bezala. Garai hartan, *Lan-Deya*, ELAren paperetan ere irakurri ahal izan ziren Estanisen hi-

tzak; ez, ordea, Uxola izenpean, izan zezakeen arriskua ekiditearren.

Euskal Herriratu eta berehala, polizia espainiarrak ez zion arnasa hartzeko betarik eman; izan ere, behin baino gehiagotan, atxilotu eta galdekatu zuten. 1968an atxilotu zuten Hernanin beste batzuekin batera (artean Joseba Arregi) erdi afari erdi bilera batean. Sei hilabete pasa behar izan zituen Martuteneko espetxean, 59 urte zituen orduan. Kartzelatik ateratakoan, ez zuen bakerik lortu, behin baino gehiagotan deklaratu behar izan baitzuen legez kontrako propagandarekin aritzeagatik. Denbora gutxirako izan arren, arrazoi beragatik joan zen kartzelara berriro ere.

Ondorengo urteetan, Tolosako *Centro de Atracción y Turismo*-n egin zituen jubilatutako arteko azken lan-urteak, bai eta Tolosako Eskolapioetan ere, euskara irakasle moduan. 70. hamarkada amaieran amaitu zituen *Fitxatzeko lanak* nolabait esateko, idazteko lanak, berriz, ez zituen hil arte bukatu. Bere eskuek hamaika artikulua, nobela, olerki, bertso eta, batez ere, antzerki oparitu zizkion Euskal Herriari.



Idazle sutsu

Hona hemen eleberria eskaintzerakoan idatzitakoa: «Ene ama maiteari, bere magalean euzkeraren xamurra eman izan zidalako ta ene emazte ta seme-alaba biotzekoei, gure izkuntza eutsi ta aurreragokoei eman dezaieten»

LAN EMANKORRA

«Ttiki-ttikitandikakoa dut ipui eta olerkiak idazteko zaletasuna. Amalau urteko mutikoa nintzelarik eta mekanografia ikasten ari, bapatean asma oi nituen ipuiak eta aldamenekoai esan, ark idaz zitzan. Ustekabean urbildu zitzaidan, beingo batez, irakaslea eta ipuia kendu. Neri kendu zidan ipui uraxe izan zen urrengo egunean takigrafia ariketarako gai, eskolako gaztetxo guztiak farrezka zirelarik. Auxe izan zan nere lenengo literatur-saria.» Hala zioen Uxolak elkarrizketa batean, idazteko zaletasunari buruz.

Santi Onaindiak, berriz, horrela definitu zuen Uxola: «gizaseme grinatsu ta zirimara, idazle aspergaitz, teatru-zelaian batez ere». Ez zitzaion arrazoirik falta, ikusi besterik ez dago zenbat hitz idatzi dituen haren lumak. Eskolako literatur saria irabazi ondoren (takigrafia ariketarako ipuina), hark emandako bultzadaz, idazteari eskaini zion ia bere pentsamendu osoa. Burura etorriak edozein paper izkinetan idazten zituen noiznahi, bazter guztietatik ateratzen zituen papertxoak.

Papertxoez haratago, oso gaztetatik hasi zen euskal aldizkari eta egunkarietan

idazten. Bere hasierako idatziak, aldizkako hainbat argitalpenetan argitaratu zituen: EAJren sarean argitaratzen ziren *Euzkadi-n* eta *Argia-n*, *Lan-Deya* ELAren paperean eta Nafarroako kaputxinotarren *Zeruko Argia* aldizkarian, besteak beste. Gerran zebilela ere dantzatu zuen luma, Bilboko *Eguna*-n argitaratu zituen bere hitzak. Horrela dio Uxolak *Tolosak bere kulturagileei* liburuan: «... errezkadan idazteari guda garaian Bilbo'n euskera utsean ateratzen zen *Eguna* egunerokoari zor diot. Guda-oiñetik nere idazlanak igorri eta toki onean ta gaiñera apaingarriaz orniturik azaltzen zutenean zirrara aundi bat egin zidan. Ta ordaintzen asi zitzaizkidala nere lanak esan zidatenean, orduan artu nuan nere buru jabetza». Gerostik, hainbat argitalpenetan idatzi zuen: Venezuelako *Euzko Gogo*-n, *Agur*-en, *Egan*-en, *Aranzazu*-n, *Goiz Argi*-n, *Príncipe de Viana*-n *Olerti*-n, *Gudari*-n eta baita Euskerazaintzaren paperean ere. Ondoren etorri ziren *El Diario Vasco*-n, *Redención*-en, *La Voz de España*-n etab.etan idatzitakoak. Azken horretan argitaratu zituen euskal musika tresnen inguruko etnografia eta artisau lanak.



Basarriren (eskuinean zutik) omenaldian ateratako argazkia.

Basarri bat-batean kantuan ari den bitartean, Uxola, burura etorritako zerbait idazten ari da papera eta luma eskuan dituela. Askotan egiten zuen hori, edozein momentu eta tokitan, burura etorriak papertxo batean idaztea, alegia

Prentsan ez ezik, beste arlo literarioetan ere saiatu zen Uxola; guztira lau eleberrri idatzi zituen: *Andoni*, gerrako gudari baten gertaerak kontatzen dituen; *Pelotaria*, Oesteko nobela; *Xixoriren gertaera*, sariketa batean aipamen berezia lortu zuen polizia-nobela; eta Oiartzun inguruko sagardotegi batean giroturiko *Ezpalak*. Azken hori da lau eleberrietatik argitaratu den bakarra, 1973an argitaratu zen Kardaberaren eskutik. Nobela horrekin bigarren sari bat ere jaso zuen, hain zuzen ere, Agur elkarteak 1971n antolatutako Gotzon Garitaonaindia literatur



Horrela dio eskaintzak: «Francois Mauriac idazle ospatsuari, omenaldi bat egitearren euskeratu dut bere eleberri au, euskaldunak zaitu eta gure izen onaren alde biotzez eta lumaz irten zalako»

lehiaketan. Liburu eta narrazioak idazteaz gain, itzuli ere egin zituen beste zenbait. Euskaratutako narrazioen artean hauek aurki ditzakegu: George Simeon belgikarraren *Le dependu Saint Pholis* (*Lieja'ko Urkatua*), Edgar Wallace-ren *Iron-Greep* (*Burni-atzapar*) eta François Mauriacen *Noeud de vipères* (*Sugegorri korapilloa*, argitaratua). Mikel Telleriaren *Euskalhe-*

rriko Karramarroak liburuaren lehen itzulpena berak egin da. Baita Andersen, Andreiev eta Dickens-en ipuinak ere.

Horrela esan zuen behin Uxolak: «... aldirik artzen badet, nere autobiografi oso bat egin nai nuke, ezkutuan bai-tauzkat egin ditutan eta jendeak pentsatu ere egingo ez lituzkean zenbait egintz eta gertakizun. Itz batean ba-dauzkatela kolkoan anitz gauza esateko. Egingo nukean beste gauzatxoren bat, gai ontaz ere ba-detalako ixilkako gauz garrantzitsu asko esateko, onela jarriko niokena izenpurua, euskeraz: *Ikurriñaren kondairarako zerbait geiago*; eta erderaz itzulia, onela: *Aportación a la historia de la ikurriña*». Eta honela amaitzen du etorkizunean idatziko duenari buruz: «Beraz, osasuna, bizitza eta lanerako aldia eskatzen det. Eta jaunak lagun dakigula».


ANTZERKIA NAGUSI

Estanisek gogokoen zuen arloa antzerkia zen. Zaletasun amorratu horrek 50 obra inguru utzi dizkigu (asko antzeztuak): *Lengusu amerikanoa*, *Gurutz ori nere biz-*



Lehenago antzeztua izan bazen ere 1983an argitaratu zen Uxolaren antzerki obra hau. Irlandako herritarrek Ingalaterraren aurka eta bere askatasunaren alde borrokatu zuten egunetan oinarrituriko obra da. Euskal gatazkaren metafora gisa jo izan dute askok

karrean, Biotz zekena, Pernando Amezketarra, Biok... Jeolimo alajaiña! (antz.), Eskalearen Eguberria, Neronek galdu nuan nere alaba, Indarraren legea (antz.), Larreborda (antz.), Eskergaiztokoa, Buzo-kiko bost ziran (antz.), Ezkontzeko deia (antz.), Sor Gurutze, Espetxeratu 2.000, Odol urdiñekoak, Eskolari piper, Iñakixto'ren altxorra (antz.), Itzulera (antz.), Billaua baiñan billauagoa (antz.), Barkapena, Iñauterietan, Gorrotoaren emaitza, Untzabe'ko kimu berriak, Kontuz Dalila'rekin, Begi ta biotz gabeko aragi multzoa, Yolanda, On egiteagatik irakasle (antz.), Lapur eta maltzur (antz.), Lau lore erre-gin batentzat (antz.), Ikastolaren aurrean pastel bat, Marrubiak, Aitorren altxorra, Ekintza: Polonia, Mamuxka, Euskal mendien ezkontza, Perretxiku batzaldia, Bel-



Lekuona'tar Manuel Jaunaren Omenezko Idazki-Bilduma titulupean argitaraturiko liburuan aurki daiteke Uxolak 1974an idatzitako haurrentzako *Lapur eta Maltzur* antzerki obra. Lan honekin eskuratu zuen Tolosako CITEk antolatutako Antxon Elozegui Haur Antzerkientzat I. Sariketa-ko lehen saria

tza oa askatasunean, Andregai bat Arregi baserriko, Salkindaria eta Askatasun garratza (antz.). Azken lan hau izan zen Uxolaren antzerki lanetatik liburu batean argitaratu zen bakarra, 1973an.

Berak euskaratuak dira: Alvarez Quinteroren *Doña Clarines* (*Andra Txintxarri*), Mauricio Rosencofen *Zaldiko-maldiko biurria*, M.^a Clara Machadoren *Tipuliñen arrapaketa*, Bernard Shawen *Pigmalion* eta J. Conty eta G. Visanten *Le hockey* (antzeztua). Baita honako obra hauek ere: *Zaldilaria*, *Mimintz'en ikasketak*, *Lixuontzia* eta *Legegizon baten estuasunak*.

Antzerkiarekiko zaletasun hori argitze aldera, hark esana da: «Asieran eleberrigintzari ekin banion ere, antzerkiagana itzuli nintzan gero. Eleberriak argitaratzea baino antzerkiak antzokietan agertzea errezago dela badakigu, eta gure izkuntzarentzat ongarriago ere bai». Abertzale giroan murgilduta ibiltzea kaltea ala laguntza izan ote zen galdetuta, hona erantzuna: «Ene abertzaletasuna izan da neretzat ezten eragillerik zorrotzena. Abertzaletasuna nigan nabaitu nuenean hasi nintzan euskaraz idazten, izkuntzarik gabe ez bai da

erririk». Antzerkiak nolakoa izan behar duenari, berriz, «Entzulea alaitu eta zerbait irakatsiko diona izan bear luke antzerkiak, eta euskeraz. Euskerarik gabe (goikoek eta behekoek) iñoiz aberririk ez dugu izango, zenbaitzuk bere jokaerarekin alderantzia erakus nai badigute ere» erantzun zion.

Egindako lanaren fruitu hainbat sari jaso zituen Uxolak. Lehiaketa batera aurkeztu zuen lehen lanarekin, *Zotaletxe-ko artzaia*, lehen postua eskuratu zuen Arantzazuko jubileu-urtekoa delakoaren baitan, 1958an. Harrezkero beste hainbat sari irabazi zituen, hala nola, lehen postua Zarauzko CIT ipuin-lehiaketan, bigarren postua *Agur* taldeak antolatutako Nobela-lehiaketan eta sari gehiago Oretako ipuin lehiaketan, Euskararen Akademiako haur literaturako lehiaketan, eta abarretan. Prosan ez ezik, 1964an, Donostiako Euskal Jaietan bigarren saria jaso zuen olerkien atalean. Antzerki atalean ere jaso zuen sari mordoa hainbat lehiaketa ezberdinetan, besteak beste, Ondarroako Udal Kultur Batzordeak antolatutako Antzerki Laburren Sariketan eta

Tolosako CITEk Antxon Elozegui Haur Antzerkientzat antolatutako haurrentzako antzerki obra lehiaketan. Sorterrian, lehen saria jaso zuen 1974an *Lapur eta Maltzur* antzerki lanarekin; 1976an, berriz, bigarren postua eskuratu zuen. Sabindiar Bazkunak antolatutako entsegu-lanen sariketan ere jaso zituen sariak. Azken honetan, bigarren postua eskuratu zuen *Ara-na Goiri'ren sozialtasuna* lanarekin.

BERTSOZALE AMORRATUA


Uxolaren lanak argitaratuak, antzeztuak eta entzutetsuak izan arren, bazuen hain ezaguna egin ez zen afizio-ofizioa: bertsolaritza. Zaletasunaz haratago, bizi-tzarako bidelagun izan zuen Estanisek bertsolaritza, bizitza ulertu, sentitu eta azaltzeko modua, hain zuzen ere. Pape-rean idatzi ez ezik, tokian-tokian arrapa-ladan kantatzen zituen Estanisek burura etorriak. Urruzola sendian aski ezagunak dira Estanisen bertsoak. Xabier, semeak, esaterako, fresko du bizikletazko txangoetan kantatzen zuen hura:

Txuri gorri berdea,
gure ikurrin maitea...

Uxolaren anaia Jose Luisek ere gogoan zuen honakoa: gaztetan bere bi anaiekin Erniora joatekotan zirela, anaia txikienak, Eduardok, kasketa edo haserrealdia har-rapatu eta azkenean ez joatea erabaki zuen. Uxola eta Eduardo mendi tonto-rran zirela, haxe kantatu omen zuen:

Ernio mendi, ernio mendi
hau dek gosia daukatena,
laister jango degu
bi lagunek hiruena.

Lenbixiko entsalada
ta paella ardua berriz hurrena
mermeladakin goxauko degu
bi lagunek hiruena.



Hamaika bertso idazten zituen Uxolak, horietako batzuk publikatu ez arren karpetan gordetzen zituen. Hona hemen horietako bat

itsasoa, urtaroak, Tolosa eta abar. Baina bertsolariaren lumak astintzen zituen gaietan nagusi, euskara eta aberria ziren, ezbairik gabe. Hona hemen adibide garbi bat, «Himalaya'ko mendi-katean», 1980an *Olerti*-n plazaratua:

1. Himalaya'ko mendi-katean
Everest izena duna
mundu guztiko mendietatik
berauxe degu goituna;
nekeak-neke, guztiz kementsu
mendizale euskalduna
bertara igo ta goienenan
jarri ikurriñ kuttuna.

2. Auzo-lanean, oitu bezela,
danak lagun alkarrekin:
gipuzkoarrak bizkaitarrekin,
arabarrak naparrekin,
ikasbidea eman digute
nola irten garaitzakin:
beste Everest arki dezagun
emen bertan, Euskalerrí'n.

Uxolaren bertsoen artean ezagunik bada, ordea, *Eusko Gudariak* da hori, ezbairik gabe. Bere egilearen inguruan eztabaida egon arren, Uxolak «doinua ez nian nik egin baina letra nerea dek!» esan omen zuen behin baino gehiagotan.



Askok *Eusko Gudariak* bertsoen egilea nor den ziur egon ez arren, dokumentu honetan Uxolaren sinadura ageri da, «1936. Jorraila, Guda hasi aurretik egiña», hitzez lagunduta



1983ko Tolosako San Juan III. Literatur Lehiaketan lehenengo saria jaso zuen «Abizena damaidan baserriari» bertso lanarekin. Edizio hartako irabazleekin honako liburua argitaratu zen



Euskal kulturaren eragile

Inauterizale borrokatua zen Uxola, baita anaia ere. Argazki honetan Igañde goizeko dianan ageri dira biak

EUSKARA BATUA ETSAI

Literaturan ez ezik, gizartean ere oihartzun handia izan zuen Estanislao Urruzolak, hizkuntzaren arloan batez ere; euskararen defendatzaile sutsu izanik, behin baino gehiagotan ikusi baitzuen bere burua polemikaz inguratuta. D. Manuel Lekuonak hala definitu zuen behin: «Temible y temido polemista». Ez ziztaion arrazoirik falta Lekuonari, Euskaltzaindiaren aurka jardun baitzen Urruzola hamaika bider. Uxolaren pentsamendu berekoak ziren garai hartako letra-gizon asko ere, besteak beste, Agud Querol, Jose Joaquín Azurza, Jesus Elosegui, Jose Lasá Apalategui, Plácido Mujika, Martín

Olazar, Yon Oñatibia, Gorka Oteiza, Timoteo Urkiri, Ambrosio Zatarain, Dionisio de Oñatibia eta Vicente de Latiegi.

1968an elkartu zen Euskaltzaindia, Arantzazun, Euskara Elkartzeko Plana aurrera eramateko. Plan hori, Euskaltzaindikoren aurreneko lehendakari D. Resurrección María de Azkuek proposatua izan zen, eta euskarak Gipuzkera Osotua delakotik eratorria izan behar zuela erabaki zuen. Ados ziren erabaki horrekin garaiko idazle, esatari eta herritarrak; begi onez ikusten baitzuten denek Euskara Elkartzeko Plana. 10 urte geroago, ordea, 1978an, oso bestelakoak ziren gauzak. Euskaltzaindia Bergaran batzartu zen aipatu



Euskara elkartuaren aldekoa baina Euskara Batuaren etsai amorratua zen Uxola. Bere ideiak irakur daitezke liburu honetan. Honakoa esaterako: Euskaltzaindiaren Arantzazuko batzarrera bere iritzia bidali zuen idatziz, baina bere hitzetan «no se leyó, ni tampoco se mencionó... sencillamente porque atacaba desde un punto de vista en el que seguramente no lo hizo ningún otro»

planaren inguruko erabaki garrantzitsuak hartzeko. Tolosako Iparragirre Antzokian, berriz, Kardaberaz, Euskal Idazleen Elkartekoak (arteaz Uxola), elkartu ziren Bergarako batzarrean hartutako erabakiak aztertzeko. Euskal idazleak ez zeuden batere gustura Euskaltzaindiak azken 10 urteetan izan zuen jarrerarekin eta egun hartan bi erabaki garrantzitsu hartu zituen Kardaberaz-ek. Batetik, Euskararen Akademia berri bat sortzea; bestetik, Euskaltzaindiari espediente bat irekitzea. Aurreneko erabakiari dagokionez, *Bazkun Eratzallea* delakoa sortu zuten. Espedienteari dagokionez, berriz, bilera hartan zegoen idazle bat izendatu zuten lan horretarako. Hala sortu zen

Euskerazaintza ofizialki, 1980ko urriaren 3an. Geroago Euzkerazaintzaren idazkari izatera iritsiko zen Uxola. Espedienteaz, ordea, ez zen gauzatu. Lan horretarako izendatua izan zen pertsonak, ez omen zuen denborarik izan, jardura politiko eta literarioetan buru-belarri aritu baitzen. Hala dio Vicente de Latiegui eta Dionisio de Oñatibia idatzitako *Euskaltzaindia El Batua y la muerte del euskera* liburuak. Eta zera irakur daiteke bertan liburua sortzearen arrazoien harira: «No es un expediente; no es, al menos, el Expediente que Kardaberaz Bazkuna proyectó... creemos que será suficiente para que pueda lograr lo que en aquella Asamblea del Teatro Iparragirre de Tolosa intentaban los Escritores Vascos de la Asociación Kardaberaz: dar razón clara a nuestro pueblo vasco del torcido proceder de Euskaltzaindia, y hacer patente al mismo tiempo la aberración que supone la invención de una nueva Lengua Vasca: El Batua, lenguaje de coctelera, inventado con fines revolucionarios por exiliados



UXOLA OMENDUZ


Euskal Kulturaren alde egindako lanagatik (euskararen alde batez ere), hainbat omenaldi jaso zituen Uxolak bizitzan zehar, baita hil eta gero ere. Berak bereziki gogoratzen zuenetako bat, 1977an jasotako omenaldi beroa da, «Tolosa'k bere kulturagileei omenaldia» izenpean egindakoa, hain zuzen ere. Uxolaz gain beste 20 lagun ere omendu zituzten ekitaldi hartan, besteak beste, Isaac Lopez Mendizabal, Antonio Maria Labayen, Manuel Laborde, Carlos Elósegui, Cecilia G. de Guilarte eta Ignacio Mocorrea. Omenaldiaren harira argitaraturiko liburuan irakur daitekeen moduan «Tolosak, 1977. urtean, omenaldi bat eskaini zion eskerron eta laudorioz herriaren alde beren lan, ahalegin eta zerbitzutan nabarmendu izan zen zenbait pertsonari» eta «Eta hala, Tolosan, urte horretan, ospatu ekintza hark uka zuen hainbat ezagugarri: musikaldi, idatzi, mintzaldi, irribarre, besarkada, sinpatia, baina eskerrona batipat».

Liburu horretan Uxolak idatzia da honakoa: «[Gogoratzen naiz ongi, bein Carrasquedo Olarra antzezidazlearekin ta



1977an, «Tolosa'k ere kulturagileei omenaldia»-n ateratako argazkia. Uxola (eskuinean) Ander Letamendia (ezkerrean) CITeko kidearen eskutik oroigarria jasotzen. Atzean ageri dira omenduak izan ziren beste tolosar batzuk

bere emaztearekin topatu eta nere aurkezpene emazteari egiterakoan, nolaz esan zion: “Este es Uxola, uno que todavía tiene humor para escribir obras de teatro (Au, Uxola, dezu, antzerkiak idazteko oraindik umorea duan bat)”. Ni, ximatsu izaki, esan bezela, oraindik zerbait geiago



Uxola hil zen urtean, 1986an, haren omenez San Juan literatur sariei Uxola Sariak izena jarri eta liburuxka hau argitaratu zen edizio hartako irabazleekin. Amaieran, ordura arte argitaratu gabeko Uxolaren «Beti gidari bat» ipuina irakur daiteke



egin nai nuke. Ezker-gaizto, maltzurkeri, bakaitzkeri eta griñ txar guztien gaiñetik. Jakiñagatik, euskeraren zuzendaritzarako dauden batzuek gure izkuntza politizatu egin dutela eta jokabide onen ondorenak ikusirik ere. Beraz, aurrera. Baiñan aurrerabide urrats oiek, zer egiteko? Nik, orain, onekin borobilduko nuke: idatzi, idatzi eta idatzi. Asmamenaren bul-tzadaz idatzi]». Tolosan egin zioten beste omenaldi garrantzitsu bat, hil eta gero, etorkizunean ere iraungo duena, izan ere, Uxola Sariak izenpean, literatur lehiaketa antolatu baitzuen 1986an Tolosako Udalak eta Tolosako Euskara Batzordeak. *I. Uxola Sariak, 1986* titulupean argitaraturiko liburuxkaren hitzaurreak hala

Inauterietan mozorrotuta eta kalera aterata ez ezik, beste modu batera ere parte hartzen zuen Uxolak. Herriko sozietateetako abestiei letrak jarri eta beste batzuk euskaratu baitzituen. Argazkian, sozietate bateko partaideekin ageri da, erdian, gorbataz

dio: «Tolosako Udalak urtero antolatzen duen literatur sariketak izan ditu zenbait aldaketa aurtengoan. San Juan sariak bost urte betetzerakoan, Uxola sariari utzi dio lekua... Denbora-epe honetan, gertakizun samín bat ere izan du euskalgintzak eta euskal literaturgintzak. Tolosar idazle oparo eta sari honetako eskuratzaille emankorra zen Estanislao Urruzola *Uxolak* utzi egin gaitu. Aukeraz baliatuz eta bere omenez Uxola sariak izango dira hemendik aurrera. Berak, ipuin bat utzi zigun jada prestaturik sari honetarako. Zein omenaldi hobeagorik idazle batentzako, argitaratu gabeko lan bat plazaratzea baino?».

Honela dio M.A kazetariak, 1986ko martxoaren 20an, Uxola hil eta egun gutxira (17an zendu zen): «Ezten zorrotzeko idazlea zen Uxola, eztabaidetan batez ere, Euskaltzaindiak euskara batzeko emandako erabakien etsai amorratua bilakatu zen. Aurretik joandako euskaltzale eta idazleen baratzean izan dezala atsedén Uxola abertzale suharrak».

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko jasotako laguntzagarik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Urruzola familiari
- Joxe Mari Iturrasteri
- Kike Amonarriz
- Nagore Soroari

Zuzendaritza:	Mikel Atxaga
Argitaraldia:	1.a, 2009ko ekaina
Ale-kopurua:	2.300
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria:	Edorta Sanz
Fotokonposizioa:	Ipar, S. Coop. Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao
Inprimaketa:	Grafo, S.A. Avd. Cervantes, 51 - 48970 Basauri (Bizkaia)
ISBN:	978-84-457-2966-3 (Lan osoarena) 978-84-457-2967-0
L.G.:	BI - 1701-09

BIDOGILIEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco